Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea

Gurutzeta Ospitalea Hospital Cruces

ORTOVÁS
ORTOVÁS MÉDICA, S.L.

**MIKROKIRURGIAKO III. OINARRIZKO IKASTAROA ANTOLATZEKO UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO/EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAREN, GURUTZETAKO UNIBERTSITATE OSPITALEAREN ETA ORTOVÁS MÉDICA S.L.ren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMEN ESPEZIFIKOA**

**ACUERDO ESPECÍFICO DE COLABORACION ENTRE LA UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO / EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA, EL HOSPITAL UNIVERSITARIO DE CRUCES Y ORTOVÁS MÉDICA S.L. PARA LA ORGANIZACIÓN DEL III CURSO BÁSICO DE MICROCIRUGÍA**

Leioan, 2012ko otsailaren 15ean.

En Leioa, a 15 de febrero de 2012.

**HAUEK BILDU DIRA:**

Alde batetik, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (aurrerantzean, UPV/EHU), helbide hau duena: Sarriena auzoa zk.g., 48940 Leioa (Bizkaia). Bizkaiko Campuseko errektoreorde Carmelo Garitaonaindia Garnacho arituko da bere izenean eta ordezkari gisa, esleituta dituen eskumenei jarraiki.

Beste alde batetik, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea (aurrerantzean, Gurutzetako UO), helbide hau duena: Gurutzeta plaza 12, 48903 Barakaldo (Bizkaia). Gurutzetako Ospitaleko zuzendari mediko Alberto Olaizola Mendibil doktorea arituko da erakundearen izenean eta ordezkari gisa, urriaren 22ko 4998/2009 Erabakiaren bidez (2009ko azaroaren 24ko EHAA) jasotako izendapenaren arabera dagozkion ahalmenak gauzatuz.

Azkenik, Ortovás Médica S.L. enpresa (aurrerantzean, Ortovás), helbide hau duena: Pozokoetxe kalea 4. lokala, 48970 Basauri (Bizkaia). Bertako gerente Jon Lujua Altuna arituko da enpresaren izenean eta ordezkari gisa, Bilboko notario José Mª Rueda Armengoten aurrean sinatutako sorrera eskrituraren arabera (protokolo zk.: 656/98) dagozkion ahalmenak erabiliz.

UPV/EHUk, Gurutzetako UOak eta Ortovásek (aurrerantzean, denak batera "alderdiak") hitzarmen espezifiko hau sinatzeko eta barne hartzen dituen betebeharrak beren gain hartzeko behar adinako gaitasun juridikoa aitortu diote elkarri, eta hau

**REUNIDOS**

De una parte, la UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO/ EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA (en adelante UPV/EHU), con domicilio en Barrio de Sarriena s/n, 48940, de Leioa (Bizkaia), y actuando en su nombre y representación, D. Carmelo Garitaonaindia Garnacho, en calidad de Vicerrector de Campus de Bizkaia, en virtud de las competencias que tiene atribuidas.

De otra parte, el Hospital Universitario Cruces (en adelante H. U. Cruces) con domicilio en Plaza Cruces-Gurutzeta 12, 48903 Barakaldo, (Bizkaia), y en su nombre y representación Dr. D. Alberto Olaizola Mendibil en su calidad de Director Médico del Hospital de Cruces y en ejercicio de las facultades que le han sido atribuidas en virtud de su nombramiento mediante resolución 4998/2009 de 22 de octubre (BOPV de 24 de noviembre de 2009).

De otra parte, Ortovás Médica S.L. (en adelante Ortovás) con domicilio en c/ Pozokoetxe 4 Local, 48970 Basauri, (Bizkaia), y en su nombre y representación D. Jon Lujua Altuna en su calidad de Gerente y en ejercicio de las facultades que le han sido delegadas en virtud de la escritura fundacional nº de protocolo 656/98 que se suscribió ante el notario de Bilbao D. José Mª Rueda Armengot.

La UPV/EHU, el H. U. De Cruces y Ortovás, en adelante conjuntamente las "Partes", reconociéndose mutuamente la capacidad jurídica suficiente para la firma del presente Acuerdo Específico y la asunción de las obligaciones contenidas en él,

**ADIERAZI DUTE:**

2011ko otsailaren 23an, alderdiek "**Euskal Herriko Unibertsitatearen, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalearen eta Ortovás Médica S.L.ren arteko lankidetzarako esparru hitzarmen**" bat sinatu zuten.

Lankidetzarako esparru hitzarmen hori gauzatzeko, alderdiek barruko mediku egoiliarrentzako (BAME) eta kirurgia arloko espezialistentzako prestakuntza ikastaroak sustatu nahi dituzte.

Adierazitako guztiagatik, alderdiek honako klausula hauen arabera gauzatuko den hitzarmen espezifiko hau sinatzea erabaki dute.

**KLAUSULAK**

**LEHENENGOA.- Helburua**
Gurutzetako Ospitaleko urologoen (espezialistak eta prestakuntza prozesuan daudenak) prestakuntza hobetzeko oinarrizko mikrokirurgia ikastaro bat antolatzea eta ematea.

**BIGARRENA.- Ikastaroaren helburuak**
Ikastaroaren helburua parte-hartzaileek oinarrizko mikrokirurgia tekniketan behar adinako trebetasuna eskuratzea da, beren jarduera klinikoetan teknika horiek segurtasunez eta bermearekin aplikatu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.- 2012ko lanerako plana**
Ikastaroak guztira 40 ordu iraungo du, eta lau orduko saiotan banatuta. Saioak astean behin egingo dira, astearte arratsaldetan, otsailaren 21etik aurrera. Ikastaroa amaitutakoan, bertan parte hartu dutenek ikastaroa egin dutela egiaztatzen duen diploma bat eskuratuko dute.

Ikastaroak hiru zati izango ditu:

I.- Prestakuntza teorikoa
- Laborategiko animalien manipulazioa.
- Anestesia karraskarietan. Laborategiko animalien eutanasia.
- Eremu mikrokirurgikoaren ergonomia eta prestaketa.

**EXPONEN**

Que con fecha 23 de febrero de 2011 las partes suscribieron un "**Acuerdo marco de colaboración entre la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, el Hospital Universitario de Cruces y Ortovás Médica S.L.**"

Que en desarrollo del citado acuerdo marco de colaboración las partes desean impulsar la realización de cursos de formación para médicos internos residentes (MIR) y especialistas quirúrgicos.

Por lo expuesto, los intervinientes acuerdan la suscripción del presente acuerdo específico, que se regirá por los siguientes

**CLAUSULAS**

**PRIMERA.-Objeto**
Organización e impartición de un Curso Básico de Microcirugía orientado a la formación de Urólogos (especialistas o en formación) del Hospital de Cruces.

**SEGUNDA.-Objetivos del curso**
El objetivo del curso es lograr que los participantes adquieran la destreza suficiente en las técnicas microquirúrgicas básicas que les permita aplicarlas con seguridad y garantía en su actividad clínica.

**TERCERA.-Plan de Trabajo 2012**
La duración completa del Curso será de 40 horas, y se desarrollará en sesiones de cuatro horas, un día por semana, martes por la tarde, a partir del 21 de febrero, durante 11 sesiones. Una vez finalizado, se entregará un Diploma Acreditativo de la realización del Curso.

El Curso constará de tres partes diferenciadas:

I.- Formación teórica
- Manipulación de animales de laboratorio.
- Anestesia en roedores. Eutanasia del animal de laboratorio.
- Ergonomía y preparación del campo microquirúrgico.

Mikrokirurgia tresnen erabilera eta kontserbazioa.
Korapiloak egiteko teknikak mikrokirurgian.

II.- "Ex vivo" prestakuntza praktikoa
- Mikrokirurgiako oinarrizko teknikak
  - Tresnekin korapiloak egitea poliestireno gainean (2 ordu)
  - Silikonazko hodien anastomosia (2 ordu)
- Hesteetako anastomosiak plano bakarrean
  - Koloneko anastomosi termino-terminala (2 ordu)
  - Jeiunoko anastomosi termino-terminala (2 ordu)
- Hesteetako anastomosiak bi geruzatan
  - Koloneko anastomosi termino-terminala (2 ordu)
  - Jeiunoko anastomosi termino-terminala (2 ordu)
- Anastomosi baskularrak (1)
  - Aorta torazikoko anastomosi termino-terminala (2 ordu)
  - Goiko kaba zaineko anastomosi termino-terminala (2 ordu)
- Anastomosi baskularrak (2)
  - Abdomeneko aortako anastomosi termino-terminala (2 ordu)
  - Zain femoraleko anastomosi termino-terminala (2 ordu)

III.- "In vivo" prestakuntza praktikoa
- Hesteetako anastomosiak plano bakarrean
  - Koloneko anastomosi termino-terminala
  - Jeiunoko anastomosi termino-terminala
- Hesteetako anastomosiak bi geruzatan
  - Koloneko anastomosi termino-terminala
  - Jeiunoko anastomosi termino-terminala
- Anastomosi baskularrak (1)
  - Abdomeneko aortako anastomosi termino-terminala
  - Zain femoraleko anastomosi termino-terminala
- Anastomosi baskularrak (2)
  - Abdomeneko aortako anastomosi

Manejo y conservación del instrumental de microcirugía.
Técnicas de anudado en microcirugía

II.- Formación práctica "ex vivo"
- Técnicas básicas en microcirugía
  - Anudado con instrumental sobre poliestireno (2 h.)
  - Anastomosis de tubos de silicona (2 h.)
- Anastomosis intestinales en un plano
  - Anastomosis término-terminal de colon (2 h.)
  - Anastomosis término-terminal de yeyuno (2.h.)
- Anastomosis intestinales en dos capas
  - Anastomosis término-terminal de colon (2 h.)
  - Anastomosis término-terminal de yeyuno (2 h.)
- Anastomosis vasculares (1)
  - Anastomosis término-terminal de aorta torácica (2 h.)
  - Anastomosis término-terminal de vena cava sup. (2.)
- Anastomosis vasculares (2)
  - Anastomosis término-terminal de aorta abdom. (2 h.)
  - Anastomosis término-terminal de vena femoral (2.)

III.- Formación práctica "in vivo"
- Anastomosis intestinales en un plano
  - Anastomosis término-terminal de colon
  - Anastomosis término-terminal de yeyuno
- Anastomosis intestinales en dos capas
  - Anastomosis término-terminal de colon
  - Anastomosis término-terminal de yeyuno
- Anastomosis vasculares (1)
  - Anastomosis término-terminal de aorta abdominal
  - Anastomosis término-terminal de vena femoral
- Anastomosis vasculares (2)
  - Anastomosis término-terminal de

termino-terminala
Zain femoraleko anastomosi termino-terminala
*(Animalia bizirik utzita)*

**LAUGARRENA.- Beharrezko bitartekoak**
Ikastaroko irakasleak:
Ignacio García-Alonso Montoya irakaslea
Kirurgiako irakasle titularra
Saileko idazkaria
Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa Saila (UPV/EHU)
Ikasleen ardura izango da erabilitako ekipamendua ondo zaintzea eta garbitzea.

**Instalazioak**
Ikastaroa Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa Saileko mikrokirurgia laborategian egingo da, Leioan (327.AL.13.5).
Laborategi horretan hiru mikroskopio kirurgiko eta mikrokirurgiarako tresnen hiru sorta daude. Horrez gain, kirurgia esperimentaleko laborategiko baliabide nagusiak ere erabil daitezke.

**Material suntsikorra**
Sutura materialak (Ortovás Médica S.L.k emandakoak):

- Zeta 8/0 TC (12 u.)
- Nylona 8/0 C (24 u.)
- Prolenea 7/0 C (12 u.)

Animaliak: 30 arratoi (Kirurgia, Erradiologia eta Medikuntza Fisikoa Sailak emandakoak)

**BOSGARRENA.- Ikastaroaren segimendua**
Programaren bigarren zatia amaitutakoan, lortutako trebetasuna frogatu beharko da, egindako suturen iragazkortasuna eta hermetikotasuna egiaztatuta. Egiaztapen hori nahitaezkoa izango da ikastaroaren hirugarren zatia egiteko. Amaitzeko, parte-hartzaileen trebetasuna frogatzeko, animaliek 24 orduz bizirik egon beharko dute. Baldintza hori nahitaezkoa izango da ikastaroa gainditzeko.
Ikastaroan proposatutako ariketaren bat gainditzen ez dutenek ikastaroa amaitu ondorengo bi asteetan errepikatu ahal izango dute:

aorta abdominal
Anastomosis término-terminal de vena femoral
*(Con supervivencia del animal)*

**CUARTA.-Medios necesarios**
Profesorado del Curso:
Prof. Ignacio García-Alonso Montoya
Profesor Titular de Cirugía
Secretario de Departamento
Dpto. de Cirugía y Radiología y Medicina Física (UPV/EHU)
Será responsabilidad del alumnado la adecuada conservación y limpieza del equipamiento a utilizar.

**Instalaciones**
El Curso se llevará a cabo en el Laboratorio de Microcirugía del Departamento de Cirugía y Radiología y Medicina Física en Leioa (327.AL.13.5).
El Laboratorio dispone de tres microscopios quirúrgicos y tres juegos de instrumental para microcirugía; además de los recursos generales del Laboratorio de Cirugía Experimental.

**Material fungible**
Materiales de sutura (aportados por Ortovás Médica, S.L.):

- Seda 8/0 TC (12 u.)
- Nylon 8/0 C (24 u.)
- Prolene 7/0 C (12 u.)

Animales: 30 ratas (aportadas por el Dpto. de Cirugía y Radiología y M.F.)

**QUINTA.-Seguimiento del Curso**
Al finalizar la segunda parte del Programa, habrá de acreditarse la pericia alcanzada mediante la constatación de la permeabilidad y estanqueidad de las suturas practicadas; esta constatación será requisito imprescindible para progresar a la tercera parte del curso. Finalmente, los participantes habrán de acreditar su pericia mediante la constatación de la supervivencia del animal durante 24 horas, como requisito imprescindible para superar el Curso.
Quienes no superen alguno de los ejercicios propuestos para el Curso, podrán repetirlos durante las dos semanas siguientes a la finalización del mismo.

Alderdi bakoitzeko ordezkari batek osatutako batzorde bat arduratuko da ikastaroa ondo gauzatzen dela kontrolatzeaz:

- Ignacio García-Alonso Montoya (UPV / EHU)
- Iñigo Pomposo Gaztelu (Gurutzetako UO)
- Jon Lujua Altuna (Ortovás Médica S.L.)

Velará por el correcto desarrollo del Curso una comisión formada por un representante de cada una de las partes:

- Ignacio García-Alonso Montoya (UPV / EHU)
- Iñigo Pomposo Gaztelu (H.U. Cruces)
- Jon Lujua Altuna (Ortovás Médica, S.L.)

**SEIGARRENA.- Indarraldia**
Hitzarmen hau sinatzen den unean sartuko da indarrean, eta ikastaroa amaitu arte iraungo du. Datozen urteetarako luzatu ahal izango da, baldin eta alderdiek horretarako idatzizko hitzarmen bat egiten badute eta, aurretik, ikastarorako lanerako plana aurkezten badute.

**SEXTA.- Vigencia**
El presente Convenio entrará en vigor en el momento de su firma y tendrá vigencia hasta la finalización del curso pudiéndose prorrogar, mediante acuerdo escrito entre las partes, por años sucesivos, presentando previamente el plan de trabajo del curso.

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmena indargabetzea**
Hitzarmen hau bertan parte hartzen duten alderdiek indargabetu ahal izango dute, horretarako ados jarrita.

**SEPTIMA.- Resolución del Acuerdo**
El presente convenio podrá resolverse por mutuo acuerdo entre las partes intervinientes.

**ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena bertan behera gelditu gero, ikastaroa amaitzea**
Hitzarmena bertan behera gelditzen bada, horren helburu diren prestakuntza jarduerak gauzatzen ari diren ikasleei ikastaroa amaitzeko aukera bermatu beharko zaie.

**OCTAVA.- Finalización del curso en caso de extinción del convenio**
Extinguido el convenio, se ha de asegurar al alumnado que está desarrollando las actividades formativas objeto del mismo la posibilidad de finalizarlas.

Eta aipatutako guztiarekin ados daudela adierazteko, alderdiek hitzarmena sinatu dute, hiru aletan eta ondorio bakarrarekin, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

Y en prueba de conformidad de cuanto antecede, las Partes intervinientes firman el presente Acuerdo por triplicado y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**Alberto Olaizola Mendibil**
Gurutzeta Ospitaleko zuzendari medikoa

**Jon Lujua Altuna**
Ortováseko gerentea
Gerente de Ortovás

**Carmelo Garitaonaindia Garnacho**
Bizkaiko Campuseko Errektoreordea
Vicerrector de Campus de Bizkaia

EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA - BIZKAIKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA - eman ta zal zazu - VICERRECTORADO DE CAMPUS DE VIZCAYA - UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO